

Euskal AEko Administrazio Publikoek 139.885 langile zituzten 2020ko urtarrilaren 1ean, lau urte lehenago baino ia 9.000 gehiago

Landunen % 58 funtzionarioak eta lan-kontratadun finkoak ziren, eta % 41, berriz, bitartekoak eta behin-behineko langileak

Euskal AEko Administrazio Publikoek (Estatuko Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren menpeko langileak kontuan hartu gabe) 139.885 langile zituzten 2020ko urtarrilaren 1ean, Eustatek landutako datuen arabera. Euskal AEko Administrazioan lan egiten duten pertsonen kopuruak gora egin du urtez urte 2016tik, eta aldi horretan 8.969 langile gehiago metatu dira, % 6,9 gehiago.

Enplegatuen % 63,1 emakumeak ziren, eta % 36,9 gizonak, aurreko urteko banaketa berari eutsiz. Euskal AEko Administrazioan emakumeen nagusitasuna nabaria izan da urteetan zehar, eta handituz joan da oraindik ere.

Urtarrilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, sexuaren arabera

	2016		2017		2018		2019		2020	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	130.916	100,0	132.442	100,0	134.925	100,0	139.569	100,0	139.885	100,0
Gizonak	50.239	38,4	50.249	37,9	50.464	37,4	51.456	36,9	51.670	36,9
Emakumeak	80.677	61,6	82.193	62,1	84.461	62,6	88.113	63,1	88.215	63,1

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda


Lan-harremanen esparru arautzailearen arabera, 2020ko urtarrilaren 1ean, funtzionarioak Euskal AEko Administrazio Publikoetan enplegatutako langile guztien % 61,6 ziren, % 37,5 lan-kontratadun langileak ziren (bi kasuetan Osakidetzako estatutupeko langileak barne), eta % 1 goi-kargudunei zegokien; ehuneko horiek guztiak aurreko urtekoen oso antzekoak ziren.

2020ko urtarrilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailea

	GUZTIRA	Eusko Jaurlaritzaren eta menpeko organismoak	Foru aldundiak eta menpeko organismoak	Tokiko entitateak eta menpeko organismoak	Beste entitate publiko batzuk
Guztira	139.885	90.374	11.708	27.170	10.633
Goi-karguak	1.342	311	208	659	164
Funtzionario guztiak	86.146	60.639	7.106	15.058	3.343
Funtzionario finkoak	62.686	46.595	4.457	9.123	2.511
Aldi baterako funtzionarioak	23.460	14.044	2.649	5.935	832
Lan kontratadun guztiak	52.397	29.424	4.394	11.453	7.126
Lan kontratadun finkoak	17.965	7.313	2.274	5.443	2.935
Aldi baterako lan kontratadunak	34.432	22.111	2.120	6.010	4.191

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Euskal AEko Administrazio Publikoetan zerbitzura dauden langile finkoak, funtzionarioak, lan-kontratadunak eta estatutupekoak, langile guztien % 57,7 ziren, aurreko urtearen aldean ia aldaketarik gabe; bitarteko funtzionarioak, berriz, % 16,8 ziren (5 hamarren gehiago), eta aldi baterako lan-kontratadun langileak % 24,6 (ehuneko 0,5 puntu gutxiago).

2020ko urtarilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailerak


Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

2020ko urtarilaren 1ean Euskal AEko Administrazioan enplegatuta zeuden 139.885 pertsonetatik, % 64,6 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioetakoak ziren, % 19,4 Toki Erakundeetakoak, % 8,4 Foru Aldundietakoak eta gainerako % 7,6a Unibertsitateetakoak, Fundazioetakoak eta beste Erakunde Publiko batzuetakoak. Azken urtean, ia aldaketarik gabe mantendu da enpleguaren banaketa Euskal AEko erakundeen artean.

Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, erakunde motaren arabera

	01/01/2016		01/01/2020		BATM 2020/2016
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Guztira	130.916	100,0	139.885	100,0	1,7
Eusko Jaurlaritza	85.389	65,2	90.374	64,6	1,4
Foru aldundiak	10.623	8,1	11.708	8,4	2,5
Tokiko entitateak	25.593	19,5	27.170	19,4	1,5
Beste Entitate Publiko Batzuk	9.311	7,1	10.633	7,6	3,4

BATM: Batez besteko aldakuntza-tasa metatua

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

2016. urtearekin alderatuta, Euskal AEko Administrazioetan lan egiten duten pertsonen kopurua 8.969tan handitu zen, eta batez besteko tasa metatua % 1,7 izan zen. Gainerako Erakunde Publikoak izeneko multzoak, besteak beste Euskal Herriko Unibertsitatea, Fundazioak, Elkarte publikoak eta abar biltzen dituenak, pisu erlatibo txikiena izan arren, batez besteko aldakuntza metagarri handiena izan du, % 3,4ko hazkundearekin. Bigarrenik, ehunekotan, Foru Aldundien hazkundea erregistratu da, % 2,5 batez besteko tasa metatuan (1.085 pertsona gehiago), eta, ondoren, Toki Erakundeena, % 1,5eko hazkundearekin (+1.577 pertsona). Eusko Jaurlaritzan lan egiten duten pertsonen kopuruak ere gora egin du aldi horretan; batez besteko tasa metatua % 1,4 izan da, eta 4.985 pertsona gehiago.

Lurraldeka, Bizkaiak enplegatutako pertsona guztien % 48,8 hartzen ditu, Gipuzkoak % 29,7 eta, azkenik, Arabak gainerako % 21,5a, 2018koaren aldean aldaketa gutxiko banaketa.

2020ko urtarilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileen lurralde-banaketa

	GUZTIRA	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Eako administrazioak	139.885	30.062	68.295	41.528
Eusko Jauriaritza	90.374	19.426	44.569	26.379
Foru aldundiak	11.708	3.644	5.366	2.698
Tokiko entitateak	27.170	5.100	12.833	9.237
Beste Entitate Publiko Batzuk	10.633	1.892	5.527	3.214

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

Ohar metodologikoa: Direktorioaren esparruan Administrazio Publikoak dira: Euskal AEko Administrazio Orokorra, Foru Aldundiak eta Udalak, eta baita ere Erakunde Autonomiadun Administratiboak, Erakunde Publikoak, Sozietate Publikoak, Fundazioak eta haien menpeko Irabazi Asmorik Gabeko Erakundeak. Barne daude % 50eko edo gehiagoko parte-hartze publikoa duten erakunde guztiak, hala administrazio bakar batenak nola zenbaitenak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62